

Andrew Norriss

Jessicaren itzala



desclée

Jessicaren itzala

Idazlea:

Andrew Norriss

Itzultzailea:

Usoa Wyssenbach Ibarra

desclée

1

Francisek bakarrik egoteko beharra zuen.

Bakarrik egoteko beharra, pentsatu ahal izateko, eta horrexegatik jo zuen, eguraldi kaxkarra gorabehera, jolastokiko bankurik urrunenera motxila bizkarrean hartuta, burumakur eta ibilera geldoan.

Nekez lortzen da ikaslez lepo dagoen ikastetxe batean soseguz eta patxadaz egoteko tarterik, baina otsaila zen, izotza ari zuen ia-ia, eta Francisek bazekien hotzak barnean babestera behartuko zituela ikasle gehienak. Eta inor kanpora irteten ausartuta ere, seguruenik ez zen banku horretara joango, ikastetxeko eraikin nagusiaren aurre-aurrean baitzegoen eta John Feltoneko ikasleek nahiago izaten zuten bazkal orduko atsedenaldia irakasle-gelatik eta zuzendariaren bulegotik hain agerian geratzen ez zen beste edonon pasatu.

Francisi, ordea, berdin zitzaion irakasleek ikusten bazuten, distantzia horretatik behinik behin; distraziorik gabe pentsatu nahi zuen, besterik ez. Eta horretan ziharduela, jarlekuan eserita, txanoa belarrietaraino tinko sartua eta te kikara bero bat esku izoztuetan, bere baitatik aterarazi zuen izaki bitxi bat ikusi zuen zelaian barrena bere jarlekurantz etortzen.

Neska bat zen, bere adin bertsukoa, eta ordu arte ikastetxean ikusi gabea bazen ere, ez zen hori deigarriena, bere janzkera baizik.

Goiza hotz-hotza izanik ere, neskak PVCzko minigona zuria zeraman –modaz zertxobait dakien edonork berehala ezagutuko zuen benetako *Mary Quant* bat zela–, kakorratzezko blusa horia, mahukarik gabea, eta sandalia irekiak. *Noranahi doala ere*, pentsatu zuen Francisek, *iritsi aurretik hormatuko da hotzaren hotzez*.

Zeharka begiratu zion eta, mutikoaren harridurarako, zuzenean berarengana zetorrela ohartu zen. Neska aurre-aurrean geratu zitzaion, eta bankuaren beste muturrean eseri zen. Jarlekuko oholtxoak izotz zuriz estaliak zeuden, baina horrek ez zion inolako trabarik egin, hantxe geratu baitzen eserita, hitz erdirik esan gabe, zelaiaz bestaldera zegoen eraikinari begira.

Francisek ez zuen konpainiarik nahi, baina jakin-min bizia piztu zitzaion. Zergatik zelai osoa zeharkatu eta bere ondoan eseri, gero txintik ere ez esateko? Eta nola arraio zitekeen hotzik ez izatea?

—Tori, edan pixka bat –esan zion kikara eskainiz–. Tea besterik ez da, baina bero-bero dago.

Neska Francisengana jiratu zen, eta gero berriz beste aldera, norekin ari ote zen ikusteko. Beste inor ez zegoela eta berari esaten ziola ohartzean, mutikoari so geratu zitzaion, aurpegian harridura nabarmen zuela.

—Nirekin... nirekin ari al zara? –galdetu zion zezelka.

—Barkatu. –Francisek eskainitako kikara kendu zuen–. Ez dut berriro egingo.

—Hara! Entzun ere entzuten didazu!

—Bai —erantzun zion Francisek—. Barka, horregatik ere.

Neskak kopeta zimurtu zuen.

—Baina... inork ere ez nau ikusten eta! Ezta entzuten ere!

—Ez ala?

—Ez bada... —Neskak arretaz begiratu zion—. Zu ere hilda zaude ala?

—Ez dut uste.

Francisek orduan, irribarre bortxatua ahoan, te hondarrak belarretan astiro hustu, eta termoaren goialdean birarazi zuen kikara. Une ezin aproposagoa iruditu zitzaion gauzak bildu eta alde egiteko.

—Ez dut ulertzen... —Neskak Francisengan iltzatu zituen begiak.

—Hortaz... zera zaudela diozu... hilda? —errepikatu zuen Francisek axolagabe itxura egin nahirik termoa motxilan sartzen zuen bitartean.

—Zer? A bai! —Eta zalantzak uxatzeko-edo, neskak beso bat jaso eta kezkoak balira bezala zeharkatu zituen jarlekuko oholtxoak—. Baina nik ulertzen ez dudana da nola arraio ikusten nauzun. Bakarra zara!

Une batez, mugiezin geratu zen Francis, termoa esku batean eta motxila bestean, zurturik neskari begira, ikusitakoa sinetsi ezinik.

—Hilda daramadan tarte honetan —jarraitu zuen neskak—, pertsona bakar bat ere ez da ni ikusteko edo entzuteko gai izan. Bakar bat ere ez. Inoiz ez.

—A... axola al za... zaizu —esan zion Francisek zezelka— hori errepikatzea? Besoarena, alegia, jarlekua zeharkatzearena.

—Zer, hau? —Eta berriz ere pasatu zuen besoa bankuko bizkarraldetik.

—Bai, eskerrik asko.

Neskak harritu antzean begiratu zion, baina berehala argitu zitzaion aurpegia.

—A! Ziurtatu nahi zenuen ez dela irudipen hutsa izan, ezta? —galdetu zion.

—Bai —erantzun zuen Francisek.

—Jakizu, orduan, ez dela zure irudipena izan —azaldu zion neskak—. Benetan hilda nago eta orain arte ikusezina nintzen mundu guztiarentzat. Jendearen aurrean jarri, eta oihuka hasita ere, inork ere... —Tinko begiratu zion Francisi—. Baina zuk ikusten nauzu!

Francisek baiezkoa egin zion buruaz.

—Hau da hau! —jarraitu zuen neskak—. Urtebete alderrai ibili ondoren, denentzat ikusezin, bat-batean jarleku batean eseri eta... —Francisengana jiratu zen berriz—. Izugarrizko sustoa eman didazu! —Eta isilune baten ostean, jarraitu zuen—: Ezusteko ederra, zuretzat ere, ezta?

—Ba bai —aitortu zion Francisek—. Oraindik ere barneratzen ari naiz, ez pentsa.

—Baina ulertu gabe jarraitzen dut. —Neskak burua astindu zuen—. Erabat ikusezina nintzen denentzat orain arte... mamua naiz eta!

—Eta zergatik? —galdetu zion Francisek.

—Zergatik zer?

—Ea zergatik zauden hilda.

—A! —Neskak sorbaldak jaso zituen—. Ez dut oso ondo gogoratzen. Imajinatzen dut istripuren batean-edo hilko nintzela. Dakidan bakarra da bat-batean ospitale batean ikusi nuela neure burua, eta zera nengoela...

—Hilda? –aurreratu zen Francis.

—Bai.

—Eta inork ere ezin zintuen ikusi edo entzun...

—Ez.

—Hara, horrela izango zen, bai...

Isilune luze bat egin zen, ikastetxeko txirrinak atsedenaldiaren bukaera iragartzeko hautsi zuena.

—Txirrin hotsak ikasgelara itzuli behar duzula esan nahi du, ezta?
—galdetu zuen neskak.

Francisek baiezkoa egin zion. Bazkariaren poltsa hartu, eta motxilan gorde zuen, baina geldirik geratu zen.

—Kontua da... –hasi zen esaten neska-. Zera jakin nahi nuen... axola zaizu gero itzultzea?

—Eskolak amaitzean esan nahi duzu?

—Bai. Berdin zait itxarotea. Esan dizudan bezala, bakar-bakarrik egon naiz orain arte eta pozgarria da mintzakide bat izatea.

—Ados –esan zion Francisek.

—Benetan?

—Bai. –Francis altxatu, eta motxila bizkarrean harturik agur esan zion-. Gero arte.

Eta ikasgelara abiatu zen.

—Jessica dut izena –esan zion orduan neskak-. Jessica Fry.

—Francis –erantzun zuen mutikoak-. Francis Meredith.

Eraikin nagusirantz zihoala, burutik pasatu zitzaion piper egin eta irakasle-gelara joatea norbaiti gertatutakoaren berri ematera. Baina, zer egingo ote zuten? Ospitalera deitu? Bere amari? Psikiatrari?

Jessicaren itzala

Hobe gauzak bere horretan uztea, pentsatu zuen, ez baitzuen inolako gogorik atsedena dia mamu baten konpainian pasatu zuela kontatzen hasteko.

Bazuen nahikoa arazo hildakoak ikus zitzakeela ere esan gabe.

2

Lauretan eskolatik irtetea eta Jessica jarlekuan ikustean, Francisek nolabaiteko arindua hartu zuen. Sen onak bazkalorduko gertaerak ameskeria hutsa behar zuela izan esaten zion behin eta berriro, eta Jessica, hitzeman bezala, zain aurkitzea arraroa bezain lasaigarria zen.

Oraingoan, baina, jeansak eta lumazko jaka, *Ugg* botak eta triko-tatutako txanoa zeramatzan minigona eta kakorratzezko blusaren orde. Mutikoa hurbiltzen ikustean, Jessica zutitu egin zen.

—Aupa! —agurtu zuen.

—Eup! —Francis neskaren aurrean geratu zen.

Isilune deseroso bat egin zen.

—Kanpoan berriketan geratzen bagara, izoztu egingo zara —esan zion Jessicak—. Zergatik ez goaz beste norabaitera?

—Etxera etor zaitezke, nahi baduzu —proposatu zion Francisek—. Zera, ahal baduzu, noski. Mamuek baduzue mugitzeko ahalmenik?

—Beste mamuek ez dakit —erantzun zion Jessicak—, baina aurrean duzun honek bai. Oso urrun al dago?

—Bost minutu-edo oinez. Alma Road-en bizi naiz. —Francisek ikastetxeko sarrerarantz eraman zuen neska—. Aldatu egin zara.